

# Banatzeko koefizienteak



Ariketa praktikoa

# Banatze koefizientea. Ariketa praktikoa

---

## 1. HELBURUA

Praktika honen helburua honako hau da: farmako azido baten oktanol/ura banatze koefizientea disolbatzailearen pHren arabera nola aldatzen den aztertu.

## 2. PRAKTIKAREN GARAPENA

- Farmakoaren 4 mg/mL-ko disoluzioak prestatzen dira pH ezberdinetan: 2, 4, 6 eta 8.
- Saiodi ezberdinetan disoluzio bakoitzeko 3 mL gehitzen dira eta beste 3 mL oktanol.
- Saiodiak irabiatzen mantendu 45 minutuz. Ondoren, pipeta batekin fase urtsutik 0,2 mL hartu, non farmakoaren kontzentrazioa neurtuko den.

# Banatze koefizientea. Ariketa praktikoa

---

- Banatze koefizientea (R) kalkulatzeko ekuazio hau erabiliko da :

$$R = \frac{\text{Farmakoaren kontzentrazioa fase organikoan}}{\text{Farmakoaren kontzentrazioa fase urtsuan}}$$



$$R = \frac{\text{Hasierako kontz fase urtsuan} - \text{Amaierako kontz fase urtsuan}}{\text{Amaierako kontzentrazioa fase urtsuan}}$$

# Banatze koefizientea. Ariketa praktikoa

---

## 3. FARMAKOAREN KUANTIFIKAZIOA FASE URTSUAN

- Saiodi batean %10 kontzentrazioa duen kloruro ferriko disoluzio baten 0,3 mL jarri, laginaren 0,2 mL gehitu eta ur destilatu 9,5 mL. Ondo nahastu kolore more uniformeak lortu arte.
- Absorbantzia espektrofotometroan neurtu 525 nm.
- Farmakoaren amaierako kontzentrazioa kalkulatzeko desagertze-koefiziente molarra erabiltzen da :

$$E_{1\%}^{1cm} = 265$$

# Banatzeko koefizientea. Ariketa praktikoa

---

## 4. EMAITZA ESPERIMENTALAK

PH	Absorbantzia
2	0,14
4	0,39
6	0,82
8	0,95

1. pH bakoitzeko banatzeko koefizientea kalkulatu
2. Irudikatu banatzeko koefizientearen balioa vs pHren balioa
3. Nola aldatzen da farmako azido baten oktanol/ura banatzeko koefizientea disolbatzailearen pHren arabera? Zergatik?
4. Nola aldatuko da farmako basiko baten oktanol/ura banatzeko koefizientea disolbatzailearen pHren arabera? Zergatik?